



# Antxinako Fotografixia



## Torreko Plaxido

Aspalditxuan, geu ixa konturaketan ezkeriela, zenbat artxibo bizidun etxaku pittinka-pittinka ezkutaiten! Harrigarria da zela emakume eta gizakume askok gorde izan dittuen goguan euren herri, auzo edo etxeko gertaera, pasadizo eta ospakizunak; zenbaterainoko zihaztasunez gogoraketan dittuen aittajun-amandre eta gurasuairi entzundakuak; eta goguan gordetakuak zein egogi eta jator kontaittan doskuen. Baiña batzuetan, denboraz jasoten ezta kigulako, makiñatxo bat historixa zahar faten da beste mundura kontalari horreikin batera. Orain dala lau bat hillabete hil xaku San Pedro auzuan **Plaxido Guridi**, Torreko semia. Zorionez, kontu ugari entzun eta grabau ahal izan gotzan.

Buru aparta eukan Plaxidok zeregin honeittarako. Gauzia nun, noiz eta zela gertatu zan, xehetasun danakin esango otzun harek. Lekuko ona ezezik, ziurra be bazan. Ez eben bere kasa ezer asmauko: *hori neuk ikusi xuat; beste hori etxuat nik ezagutu, baiña halakori entzunda xaxixat; batzuk hala izan zala esaten xuai, baiña ni eñagok hain seguru.*

Hori dala eta, jente asko inguraketan xakon informaziño eske. Banaka batzuk aittaketiarren, gogoratu daigun **Georges Rebuschi** hizkuntzalari frantsesa, **Gotzon Aurrekotxea** dialektologo bizkaitarra Euskal Herriko Atlas Linguistikua egitten ebillenian, edota **Felix Ugarte** oñatiarra gure herriko material etnografikuen billa. *Kontzekupetik* aldizkari honetakuak be bali-xau giñan bere jakindurixiaz, alkarrizketa bat moldaitteko. Esan dogunaren testigantzia gaurko argazki honek emuten dosku: hor dozue Plaxido Txopekuan, bere eskuman Georges Rebuschi linguistia dakola, eta ezkerrian Felix Ugarte geologua eta Benito Barrena bertsolarixa, oñatiarrak bixak. Izan bedi oroigarritxo hau Plaxidori eskerrak emuteko modua!

J. E.

Fotografixia 1978ko udan ataratakua da. Eskerrak Joxe Guridi eta bere famelixiari eskiñi doskuen argibidiengatik.

**Oharra:** Fan zan hillabeteko *Antxiñako Fotografixan* ordenagailluen huskerixa bategatik testua gutziz aldrebestu zan. Lehenengo parrafoko 5. illaran bi puntuko markia falta da. Honetara bihar dau: "...behekaldiak zihero barriztau zittuain: sei poste dakon aterpeia...". Beste hainbeste pasaitten da 3. parrafoko 1. illaran be: "...aspaldiko aztarranak gordeten dittuala oraindiok: garai batian *Oñatiarraneko...*".

**ALTUBE ZERBITZUAK**

Portu Kalea, 5  
ONATI

**MAPFRE**

**BIDAIAK**

**IRADIER**

Tfnoak: 78 12 65 / 78 33 97  
Faxa: 78 30 96

**CORTABARRIA INMOBILIARIA**

**API 303**

Kale Barria, 42 behea  
Tfnoa: 78 05 87  
OÑATI

- Etxebizitzak alokatzeko eta salgai.
- Kontratuak
- Eusko Jaurlaritzaren diru laguntzen tramitazioa.
- Zergen likidazioa.